

GARBIKETAKO LANPOSTUAREN PROFILA

Eskakizunak

Gutxieneko esperientzia: ez da beharrezkoa

Gutxieneko eskakizunak:

- Eskolako Graduatua
- Eraikinak eta industriak garbitzeko prozedurei buruzko jakintzak
- Honako hauexen garbiketari izandako esperientzia balioetsiko da: osasun-eraikinak, egoitzak, eguneko zentroak, ospitaleak, klinikak...

Azalpena

Babesten Taldean, GARBITZAILE bila gabiltza, egoitzetan eta eguneko zentroetan ditugun profesionalen diziplina anitzeko taldea osatzeko.

Honako hauexek izango dute xede, Taldeko Zerbitzu Orokorrerako arduradunaren eta zentroko Zuzendaritzaren menpean:

Garbitegiko zereginak garatzea eta zentroko instalazioak garbitzea eta artatzea.

Honako hauexek izango dira haien eginkizunak:

Zentroko antolakuntzari dagokionez:

- Zentroko instalazioak garbitzea, instalazioen garbiketarako eta higienerako zehaztutako prozeduren edota planen arabera.
- Logelak txukun eta garbi edukitzea: oheak egitea...
- Oheko, bainuko eta erabiltzaileen arropa garbitzea, lehortzea, lisatzea eta sailkatzea, baita banatzea ere.
- Otorduetako orgak biltzea eta baxera, tresnak nahiz sukalongdoak garbitzea.
- Zaborrak kasuan kasuko edukiontzietara botatzea.
- Euren lana garatzean instalazioetan eta ekipamenduetan antzemandako gorabeheren edo hondamenen berri ematea artapeneko langileei.
- Garbitegiko zereginak egitea.

Artatutako erabiltzaileei dagokienez:

- Garbiketako zerbitzua ematean, erabiltzaileen ongizatearen onerako izan behar dela kontuan hartzea.
- Instalazioak baldintza higieniko sanitario egokietan edukitzea.

Zentroko langileei dagokienez:

- Zentroko langileekin lan egitea zerbitzuak antolatzeko asmoz agintzen dizkieten zereginetan.

Eskaintzen duguna

- Adinekoentzako laguntzaren sektoreko lana Bizkaian liderra den erakundean (gu ezagutzeko, Babesten Taldearen profila ikusi Linkedinen).
- Gure zentro guztiak Bizkaiko Foru Aldundiarekin daude itunduta.
- **Bizkaian ditugun zentroetan (Bilbo, Sestao, Muskiz, Basauri, Bermeo, Abanto-Zierbena...).**

Gurekin lan egin nahi baduzu:

Bidali Zure CVa